

**DIRELA 200 URTE:  
FRANTZIAKO IRAULTZA NAGUSIA (1879-1799)  
GERTAKARI BATEN BALANTZEA**

**Sarrera**

Egun hauetan, 1988.eko maiatzean, direla 20 urte, 1968.eko Maiatzean gertaturiko Maiatzeko Iraultza gogora ekartzean, batez ere, 200. mendeurrenaren ateetan dugun (1789-1989) Frantziako Iraultza Nagusia dakarkigu gogora.

Oso hitz eta ideia gutxi aurkituko ditugu herrien begietan Iraultza adina mitoz eta mitifazioz jantzita direnik, mitifikazioan fantasiako irudipenak, buruberozko sentipenetan oinarriturik, historia irrealak berriro bizierazten baitu.

Idazlan honek argitasuna eskaini nahi dio, errealitatea gogo zabalez ezagutu eta une historikoa ondorio eta guzti aztertu nahi duen edonori, historia aberasbide egin nahi bada, orduko garaia Euskal Herriko gaurkoarekin gonbaratu eta ondorioak ateratzeko ausardia baldin badu.

Ez ditut neure hausnarketak eskaini nahi, ez; atizitik, egungo historia-zientziari utziko diot hitz egiten, egun ezin delako historiari manipulatu. Jarraian agertzen diren gogoetak, gai honetan gaituak diren zenbait historiagileren ikerketaren emaitza gisa, ateraberi den liburu batetatik jasoak izan dira: J. TULARD -